

HIZKUNTZEN ARTEKO ELKAR ERAGINA EAE-KO HEZKUNTZA ELEANITZEAN

Nekane Goikoetxea

Euskara teknikaria

Helbide elektronikoa: ngoikoetxea@andoain.org

The frog go out potetik.
The moskit go adonde the dog.
Nere anaiak dauke un morro!
Igal lagunek die un poquito rebeldes ta auskalo...
Seguruenik pertsona horri pelota diola.
Que no se pierda, que está en...está (el euskera) pues de forma para perderse.
Cuando pasa de alau de un termómetro...

Esaldi horiek guztiak dira euskara, gaztelania eta ingelesaren arteko elkar eraginaren adibideak. Guztiak D ereduko DHBko 2. mailako ikasleen ahotan entzun ditugu.

1. SARRERA

Hizkuntzen arteko elkar eragina terminoa (HAEE aurrerantzean) ilun samarra izan den esparru bat argitzeko sortutakoa da. Hizkuntzekin lotutako gertakari ezberdinak izendatu izan dira horrela. Hizkuntza-gertakari horien arteko mugak lausoak dira askotan. Gainera, iritzi ezberdinak egon ohi dira HAEEren balorazioa egiterakoan: iritzi ezkorrenek hizkuntz ordezkapenaren zantzuak ikusten dituzte, baikorrenek gizarte eleantzen malgutasuna. Guk ikasleen tarteko-hizkuntzaren ezaugarri

moduan erabiliko dugu terminoa, psikolinguistikaren bidetik, baina irakurketa soziolinguistikoa ere egin litekeela uste dugu, hizkuntzen estatusa giltzarrietako bat baita.

Nolanahi ere, artikulua honetan hizkuntzen arteko harreman motak aztertu nahi ditugu. Zehazki, harreman horietan eragiten dituzten faktoreak izango ditugu hizpide. Horrela, gure testuinguruan esanguratsuak gerta dakizkigukeen faktoreen analisisan sakondu dugu: hizkuntzen tipologia, psikotipologia, 2. hizkuntzaren gaitasun mailan, hizkuntzen estatusan, 3. hizkuntzaren jabekuntza gertatzen den adinean, aurrerago azalduko dugun "recency" deituriko faktorean eta formaltasun mailan... Azterketa honen bitartez gure ekarpena egin nahiko genieke hizkuntzen jabekuntzaz diharduten lanei. Lan hauetako gehienak bigarren hizkuntzaren jabekuntzaz arduratu dira eta gutxi dira hirugarren hizkuntzaren jabekuntza aztergai izan dutenak. Garrantzitsua izan liteke, beraz, elkar eragina zein baldintzetan gertatzen den ezagutzeara.

"Gaitasun komunikatiboa eta hizkuntzen arteko elkar eragina EAE-ko hezkuntza eleanitzean" (Goikoetxea, 2006 eta 2007) izeneko doktorego tesian oinarritutako artikulua da honako hau. Tesi honetan gure hezkuntza sistemako gaztetxoaren gaitasun komunikatiboa eta euskara, gaztelania eta ingelesaren arteko elkar eraginaren nondik-norakoa aztertzen dira. Gaitasun Komunikatiboaren gaia beste artikulua batzuetan jorratu dugu (Goikoetxea 2008a eta b). Honako honetan, tesian landutako bigarren ardatza hartuko dugu hizpide.

Lau motatako elkar eragina aztertu dugu guk:

- 1) Interakzio-estrategiak: Laguntza eske zuzen nahiz zeharkakoetan, ikasleek aukeratu duten oinarri-hizkuntza aztertuko dugu. Kontuan hartuko ditugu, Williams eta Hammarberg (2001, 26an) helburuen arabera ezberdindu zituzten kategoria ezberdinak ere.
- 2) Kode Aldaketak: Ikasleek aztergai dugun hizkuntzaz besteko hizkuntzetan txertatu dituzten esaldi osoak aztertuko ditugu, beti ere, laguntza eskeak ez direnean.
- 3) Transferrak: Aztergai dugun hizkuntza ez den beste hizkuntzetan ikasleek txertatu dituzten esaldien osagai ezberdinak aztertuko ditugu. Mailegatze eta atzerritartzeak hartuko ditugu kontuan (Poulisse, 1990, 111an). Lehenengo kasuan, aztertutako formak ez du egokitzapen fonologiko nahiz morfologikorik izango; bigarrenean, ordea, bai. Hurrengo kategoria hauek bereiziko ditugu: eduki semantikodunak (izenak, aditzak, zenbatzaileak, izenlagunak eta adizlagunak) eta funtzionalak (preposizio, juntagailu, mugatzaile eta izenordeak).
- 4) Aztergai dugun hizkuntzan esan edo idatzi diren formak, baina onargarritasunetik kanpo daudenak. Beraz, zuzentasun aldetik baztergarriak diren hizkuntza formak aztertuko ditugu, beti ere, beste hizkuntzen eraginez sortuak izan direnean. Azalean aztergai dugun

Tesi honetan gure hezkuntza sistemako gaztetxoaren gaitasun komunikatiboa eta euskara, gaztelania eta ingelesaren arteko elkar eraginaren nondik-norakoa aztertzen dira.

Lau motatako elkar eragina aztertu dugu guk:
1) Interakzio-estrategiak.
2) Kode Aldaketak.
3) Transferrak.
4) Aztergai dugun hizkuntzan esan edo idatzi diren formak, baina onargarritasunetik kanpo daudenak.

*Xede-hizkuntzatik
tipologikoki gertuen
dagoen hizkuntzatik
hartzen dira transferrak,
batez ere 1H tipologikoki
oso ezberdina bada.
[Ahukanna et al. (1981).*

*Gertuen sentitzen den
hizkuntza izan ohi da
transfer-iturri nagusia,
hots psikotipologiak
eragina du.*

*Bigarren hizkuntzaren
gaitasun maila baxua
dutenek 1Htik gehiago
transferitzen dute maila
altuagokoek baino.*

hizkuntza berean dauden hizkuntza-formak badira ere, sakonean beste hizkuntzen formen mailegatze lexikoak, kode-nahasketak, interferentziak, kalkoak, mailegatze semantikoak e.a bezalako kategoriak bilduko lirateke, besteak beste, multzo honetan.

2. MARKO TEORIKOA

Hizkuntzen arteko elkar eragina eleaniztasunaren ikerkuntzaren atal garrantzitsua bihurtu da azken urteetan. Aurretik, tradizio luzea du 2. Hizkuntzaren jabekuntza/ikaskuntzari buruzko arreta-guneetan. Hasiera batean, elebitasunetik haratago zihoana aztertzeke hizkuntzen interferentzia eta akatsen analisia erabili zuten ikerlariek 70eko hamarraldian batez ere. Ondoren, 80ko eta 90eko hamarraldietan, aldiz, hizkuntzen arteko transfer positiboari jarri zitzaion arreta (Hufeisen, 2000, 215 orr.).

80ko hamarraldian, bada, “cross linguistic influence” terminoa erabiltzen hasi ziren adituak (Sharwood Smith eta Kellerman, 1986) “transferak” (transfer), “interferentziak” (interference), “saihesbideak” (avoidance), “maileguak” (borrowing) eta, oro har, 2. Hizkuntzari atxikitako hizkuntza-galerak izendatzeko.

“Crosslinguistic influence” terminoak bi berrikuntza nagusi dakartzada bada, 80ko hamarraldiaz aurretiko ikerketekiko: Batetik, “transfer” eta “interference” hitzei atxikitzen zitzaaien balorazio positibo nahiz negatiboa gaintzen du. Honela, hizkuntza bateko elementuak beste batera gehitzea litzateke aztergaia, balorazioak alde batera utzita. Bestetik, elkar eraginaren norabidea ez da murrizten, 1Htik 2Hra (edo 3Hra) izan daiteke edota 2H (eta 3H)tik 1Hra.

Atzean geratzen dira bada, Weinreichen (1953) ikuspegi soziolinguistikotik egindako ekarpenak nahiz analisi kontrastiboaren ikuspegi pedagogikotik egindakoak (Larsen-Freeman eta Long, 1991). Hurbilketa psikolinguistikotik berrirakurri egiten dira aipatu termino horiek guztiak “crosslinguistic influence” zabalagoa erabiliz.

Era berean, hizkuntzen arteko elkar eraginaren azterketa 2. hizkuntzaren jabekuntzaren arloan sendotu ahala, 3. hizkuntzaren jabekuntzan aztertzeari ekin zitzaion 80ko hamarraldian. Chandrasekharek (1978), esate baterako, lehen-hizkuntzaren eragina erlatibizatu zuen analisi kontrastiboa erabiliz india ama-hizkuntza bezala zuten eta ingelesa ongi menderatzen zuten alemanerazko ikasleekin egindako azterketa batean. Ikusi zenez, ikasleek hurbilagoa zuten 2Htik ere transferitzen zuten alemaneraren jabekuntza prozesuan.

Dena dela, ikerlan gehienen aztergunea elkar eraginean, eragile diren faktoreena izan da. Jarraian faktore eragileen azterketan sakonduko dugu. Batez ere gure landa-lanean ukitu ditugunetan sakonduko dugu: tipologian, gaitasun mailan, 2. hizkuntzaren estatusetan, 3. hizkuntzaren jabekuntza gertatzen den adinean eta “recency” bezala izendatu

diren azpifaktoreetan (azken edota gehien erabili den hizkuntza edota berriekin eskuratu den hizkuntza). Alde batera utziko ditugu, beraz, hizkuntzen arteko elkar eraginaren arlo honetan zabaltzen ari diren bestelako ikerketa-gai ezberdinak. Esate baterako, 4. hizkuntzaren eta 5. hizkuntzen jabekuntza, edota 3. hizkuntzen eragina 1. hizkuntza eta 2. hizkuntzan. Labor-labor taula batean ikus ditzagun, bada, faktoreetan sakondu dituzten hainbat ikerlan:

1.TAULA: HAAEEAN FAKTOREAK AZTERGAI IZAN DITUZTEN IKERKETAK.

AUTOREA	AZTERGAIA	FAKTOREA	HIZKUNTZAK	EMAITZA NAGUSIA
Stedje (1977) (In Ringbom, 2001)	Irakurmen trebetasuna	H.ren gaitasun maila	Finlandiera Suediera Alemana (XH')	• 2H zenbat eta erabiliagoa izan ikaslearen inguruan, orduan eta eragin handiagoa 3Haren jabekuntzan
Singh & Carroll (1979)	Azterketa fonologikoa	H. tipologia	Arabiera Bengalera Txinera Alemana Turkiera Punjabiera Ingelesa (2H/XH) Frantsesa (2H/XH)	• Ikasleek 3Hrekiko tipologikoki gertuen sentitzen duten Htik transferitzen dute
Ahukanna, Lund & Gentil (1981)	Hizkuntza gaitasun orokorra	H. tipologia H.ren gaitasun maila	Igboera Ingelesa Frantsesa (XH)	• Zenbat eta garatuagoa 3H, orduan eta interferentzia gutxiago bere beste bi hizkuntzetatik • Transfer gehienak tipologikoki hurbilen dagoen Htik egiten dira
Ulijn, Wolfe & Donn (1981)	Lexikoaren azterketa	H. tipologia	Vietnamiera Frantsesa Ingelesa (XH)	• Tipologikoki lotura duten hizkuntzen artean bi norabideko eragina gertatzen da
Ringbom (1987)	Hizkuntza gaitasun orokorra	H. tipologia H. estatusa H. gaitasun maila	Finlandiera Suediera Ingelesa (XH)	• 3. Hizkuntzaren gaitasun mailak eragina du transfer kopuruan • Tipologikoki gertuen dagoen hizkuntzatik transfer gehiago hartzen dira
Singleton (1987)	Hizkuntza gaitasun orokorra	Psikotipologia	Ingelesa Irlandera Latina Gaztelania Frantsesa (XH)	• Tipologikoki gertuen sentitzen den hizkuntza da transfer-iturri nagusia
Möhle (1989)	Hizkuntza gaitasun orokorra	H. tipologia	Alemana Ingelesa Frantsesa Gaztelania (XH)	• Hizkuntzaren tipologiak eragina du transferren hautaketan
Bild & Swain (1989)	Hizkuntza gaitasun orokorra	H. tipologia	Italiera Ingelesa Frantsesa (XH)	• 1H Xede-hizkuntzatik tipologikoki hurbila denean, ez denean baino emaitza hobek lortzen dira xede-hizkuntzan

Sikogukira (1993)	Lexikoaren azterketa	H. gaitasun maila Psikotipologia H. tipologia	Kirundia Frantsesa Ingelesa (XH)	• 2Hren gaitasun mailak Xede-hizkuntzaren jabekuntzan eragiten du
Clyne (1997)	Transferrak hizkuntza estrategia gisa	H. tipologia	Holander Hungariera Italiera Alemana Ingelesa (3H)	• Hizkuntzen tipologiak eta psikotipologiak eragina du aukeratutako estrategietan • Transfer gehienak 2Htik egiten dira, ez 1Htik
Williams & Hammaberg (1998, 2001)	Jabekuntza prozesuan transferren nolakotasuna	H. gaitasun maila H. tipologia Recencya 2. H. aren estatusa.	Ingelesa Alemana Suekoa (3H)	• 1Htik egindako transferrak helburu metalinguistikoetarako erabiltzen dira • 2Htik egindako transferrak helburu ordezkatzailearekin, gabezia estaltzeko, erabiltzen dira • 2Hri atzerritartze izaera aitortzen zaio. Lau faktoreen eragina azpimarratzen da: H. gaitasun maila, H-tipologia, recencya, 2. Haren estatusa

Laburbilduz, honako ondorioak atera ditugu:

- Xede-hizkuntzatik tipologikoki gertuen dagoen hizkuntzatik hartzen dira transferrak, batez ere 1H tipologikoki oso ezberdina bada. [Ahukanna et al. (1981), Ringbom (1987), Singh eta Carroll (1979)]
- Gertuen sentitzen den hizkuntza izan ohi da transfer-iturri nagusia, hots psikotipologiak eragina du [Bild eta Swain (1989), Möhle (1989), Singleton (1987)]
- 2. Hizkuntzaren gaitasun maila baxua dutenek 1Htik gehiago transferitzen dute maila altuagokoek baino. Bestetik, 2H maila altua badu ikasleak eta hizkuntza hau esparru informalean jaso eta erabiltzeko modua badu, handiagoa da honen eragina. [Ringbom (1987), Möhle (1989), Sikogukira (1993)]
- 2Hri atzerritar itxura handiagoa egozten badiote hiztunek, 1Htik baino gehiago transferitzen dute 2Htik edo 1H ez den beste batetik [Clyne (1997), Williams eta Hammarberg (1998), De Angelis eta Selinker (1998)]
- Formaltasun mailak eragina du transfer kopuruan (Dewaele, 1998)
- “Recency” delakoak eragina du hizkuntzen arteko elkar eraginean, hots, erabiltzen den hizkuntzatik, gertuen sentitzen den hizkuntzatik, zein berriki eskuratu den hizkuntzatik (“recency” delakoaren adiera ezberdinak) egiten dira transferrak [Williams eta Hammaberg (1998, 2001), De Angelis eta Selinker (1998, 2001)]
- Adinaren faktorearen gainean ikerlarien ekarpena oso mugatua da. Badirudi garapen kognitibo eta metalinguistikoarekin lotura daukala faktore horrek. Baita psikotipologiarekin ere. Izan ere, nagusienek distantzia tipologikoarekiko pertzepzio zorrotzagoa/zehatzagoa

dute. Honek eragina izan dezake transferren oinarri-hizkuntza aukezterakoan (Cenoz, 2001).

- Bestetik, atzerriko hizkuntza, eskolan era goiztiarrean ikasteak ez du hizkuntzen arteko nahasketa ugaritzen; kopuru berdintsuak aurkitu izan dira eredu goiztiar zein berantiarra jarraitu duten ikasleen artean (Cenoz, 2003).

3. ALDERDI ENPIRIKOA

3.1. XEDEAK ETA IKERKETA-GALDERAK

Honako xedeak ditu ikerketak:

Lehenik, ikasleen hiru hizkuntzen arteko elkar eragina ezagutu nahi dugu gure testuinguruan ditugun faktoreen argitara (hizkuntzen tipologia, hizkuntzen estatusa, 2Hren garapen maila...). Elkar eragina bi norabidetan aztertu nahi dugu: ingelesean ematen den euskararen eta gaztelaniaren eragina, batetik, euskararen eta gaztelaniaren artekoa, bestetik.

Bigarrenik, D ereduko ikasleen 1Hak euskara, gaztelania eta ingelesaren arteko elkar eraginean duen eragina ezagutu nahi dugu.

Hirugarrenik, hezkuntza eleanitzean orokortu den ingelesaren sarre-ra goiztiar partzialak² euskara, gaztelania eta ingelesaren arteko elkar eraginean duen eragina ezagutu nahi dugu.

Honako ikerketa-galderetan formulatu ditugu xedeak:

Nolakoa da ikasle eleanitzen hizkuntzen arteko elkar eragina?

- a) Nolakoa da ikasleen Hirugarren hizkuntzan ematen den 1. hizkuntzaren eta 2. hizkuntzaren eragina?
- b) Nolakoa da lehen hizkuntza eta bigarren hizkuntzaren arteko elkar eragina?
- c) Ikasleen 1. hizkuntzaren arabera alderik ba al da? Zein eragin du hirugarren hizkuntza ikasten hasi den adinak?

3.2. METODOA

3.2.1. LAGINA

Metodologia kualitatiboa erabili dugu. Beraz, lagin mugatua erabili dugu formulatutako ikerketa-galderei erantzuna emateko. Ikerketa honetan DBHko 2. mailako 13-14 urteko 24 gaztek hartu dute parte. Guztiak dabilta D ereduan baina bi aldagai nagusik ezberdintzen dituzte: haue-tako 12k euskara dute lehen hizkuntza eta familiako hizkuntza nagusia eta besteek, ordea, gaztelania. Gainera, 3. hizkuntza adin ezberdinetan hasi ziren ikasten; Hauetariko 12 bost urterekin hasi ziren ingelesa ikas-

Atzerriko hizkuntza, eskolan era goiztiarrean ikasteak ez du hizkuntzen arteko nahasketa ugaritzen; kopuru berdintsuak aurkitu izan dira eredu goiztiar zein berantiarra jarraitu duten ikasleen artean.

ten eta beste 12ak zortzi urterekin. Bi aldagai nagusiak gurutzatuz honako azpitaldeak sortzen dira:

2. TAULA: LAGINA.

<p>8G 1H: Gaztelania 2H: Euskara 3H: Ingelesa 8 urterekin</p>	<p>8E 1H: Euskara 2H: Gaztelania 3H: Ingelesa 8 urterekin</p>
<p>5G 1H: Gaztelania 2H: Euskara 3H: Ingelesa 5 urterekin</p>	<p>5E 1H: Euskara 2H: Gaztelania 3H: Ingelesa 5 urterekin</p>

3.2.2. PROBAK

Ikerketa-galderei erantzuna emateko ondorengo proba hauek erabili ditugu:

3.2.2.1. Saillkapen probak

Galdetegi orokor bat erabili dugu gaztetxoek 1H nahiz bere inguru hurbileko hizkuntza nagusiaren arabera aukeraketa egiteko. Ondoren, Raven (“Raven Progressive Matrices”, 1995) probak erabili ditugu ikasleekin. Adimen proba honetan muturreko puntuazioak lortu dituztenak, goiti nahiz beiti, alde batera utzi ditugu.

3.2.2.2. Euskara eta gaztelaniazko probak

Elkarren artean konparatu ahal izateko asmoz, eta D ereduko hizkuntza helburuak aintzat harturik, proba berdina erabili ditugu euskaraz nahiz gaztelaniaz. Ahozko nahiz idatzizko testu mota ezberdinak (Adam, 1985) landu dituzte ikasleek:

3. TAULA: EUSKARA ETA GAZTELANIAZKO PROBAK

TESTU MOTA	PROZEDURA
Argazkiaren deskribapena	Idatziz, argazkian ikusten dutena deskribatzea proposatu diegu bakarka egindako saioan
Argudiozko eskutitzak	Gai gatazkatsu bati buruzko bina eskutitz idatzi dituzte, formaltasun maila ezberdineko hartzaileei zuzenduak
Komiki baten kontaketa	Ahoz egindako komiki baten kontaketa bidez grabatu zaie
Argudio dialogala	Rol-jokoa egin dugu seina laguneko bi talde ezberdinetan ikasturte bakoitzean. 1Hren arabera taldekatzea prestatu dugu

4. TAULA: INGELESEZKO PROBAK

TESTU MOTA	PROZEDURA
Argazkiaren deskribapena	Argazkiaren ahozko deskribapena egitea eskatu zaie
Komikiaren kontaketa	Aski ezaguna den "Frog, where are you?" (Mayer, 1969) komikiaren ahozko kontaketa egitea eskatu zaie
Eragiteko testua	"post-it" delako batean beren amari zuzendutako ohartxo jakin bat idaztea eskatu zaie

3.3. EMAITZAK

3.3.1.- IKASLEEN HIRUGARREN HIZKUNTZAN EMATEN DEN LEHEN HIZKUNTZAREN ETA BIGARREN HIZKUNTZAREN ERAGINA

Interakziozko estrategietan ikasleek nagusiki euskara erabiltzen dute oinarri-hizkuntza gisa. Hala ere, hizkuntza biak arbitrarioki erabiltzeko joera ere azaltzen zaigu. Argi dago ikerlariarekiko harreman-hizkuntza euskara izanik, horrek eragina duela hizkuntza aukeraketan. Aipa dezagun, bestalde, laguntza eskeak beti lexikoaren gainekoak direla, aditz nahiz izenei buruzkoak batez ere.

Kode Aldaketa, hots, beste hizkuntza batean txertatutako esaldi osoak, euskaraz bakarrik aurkitu dugu, ikerlariarekiko harremanak ezartzen du aukeraketa hau zalantzarik gabe. Hauetariko batzuek balio metadis-kurtsiboa dute, kontaketa berari egiten baitiote erreferentzia, baina ikerlariari laguntza eskerik egin gabe: "eske nao..." (5E), "ez dakit zer esan" (5G). Bestetik, gaitasun falta estaltzeko erabiltzen da: "the frog is in the...dao pote baten", "then esnatzen danen ba badijo" (5G), "they fall...ba hori lurrera" (5G).

Transferrak, hots, beste hizkuntza batean txertatutako esaldiak baino txikiagoak diren hizkuntza-formak, maila lexikoan bakarrik aurkitu ditugu, nagusiki edukizko hitzak dira gehienak, oso gutxi baitira funtzionalak (*o sea, esque, edo, bueno, adonde*). Azken hauek, gainera, edukizko transferretan ñabardurak eransteko erabili dira, ez modu autonomoan (*landarea ta ya está, botella-edo*). Bestetik, transfer gehienek sorburu-hizkuntza gaztelania da eta izenak dira gehien transferitzen diren hitzak. Aipagarria da baita ere zuzeneko mailegatzea, atzerritartzea baino sarriago erabiltzen dela. Atzerritartzea, gainera, beti gaztelania erabiliz egiten da. Aipagarria deritzogu euskarak gaztelaniatik jasotako maileguak, adierazkortasuna azaltzerakoan, esate baterako, bere-bereak dituenek, askotan zenbait transferren iturria bi hizkuntzetan koka dezakegula. Adibidez, "o sea", "esque", "aber" ... bezalako hitz adierazkorak edota "lanpara", "botella", "autopista" e.a. bezalakoak bi kodeetan darabilzkigu.

a) Nolakoa da ikasleen Hirugarren hizkuntzan ematen den 1. hizkuntzaren eta 2. hizkuntzaren eragina?

b) Nolakoa da lehen hizkuntza eta bigarren hizkuntzaren arteko elkar eragina?

c) Ikasleen 1. hizkuntzaren arabera alderik ba al da?

d) Zein eragin du hirugarren hizkuntza ikasten hasi den adinak

Hurrengo taulan laburbiltzen ditugu transfer kopuruak eta horien nolakotasuna:

5. TAULA: TRANSFER KOPURU ETA NOLAKOTASUNEN EMAITZEN LABURBILDUMA.

Euskarazko					Gaztelaniazko			
transferrak					transferrak			
	8E	8G	5E	5G	8E	8G	5E	5G
Mailegatzea: Edukizkoa	2	0	11	13	7	3	4	5
Mailegatzea: Funtzionala	0	0	3	1	2	1	3	3
Atzerritartzea: Edukizkoa	0	0	0	0	5	1	7	3
Atzerritartzea: Funtzionala	0	0	0	0	0	0	0	0

Hona hemen euskarazko transferren zenbait adibide: “the bees go txakurraren atzetik”(8E), “There are in alderantziz in the house” (5E), “The frog go out potetik” (5G), “The dog to ixiltzeko” (5G), “There are drink and hitzeiten” (5E). Beste hauek gaztelaniazko zenbait mailegatze ditugu: “2 kg. Of txitarross and 3 g. Angulas” (5E), “They are two person in a habitación” (5G), “He falls to one barranco” (8E), “The mosquit go adonde the dog” (5E), “Is aparece one animal” (8G). Azken hauek, gaztelaniazko atzerritartzeak: “Is asusteit” (5E), “And then a lanpar” (5E), “to the lat” (5E).

1H eta 2Hen eraginez zuzentasuna lortzen ez duten esaldiei begiratu gero, akatsak anitzagoak direla aipa genezake. Beste aztergaietan lexikoa izan bada ere nagusi, beste honetan morfologia, sintaxia eta ortografia ere aipagai izango genituzke. Talde guztietan interferentzia-iturri nagusia gaztelania da, bai lehen-hizkuntzari dagokionez, bai ingelesaren aldagaiari dagokionez.

3.3.2. LEHEN HIZKUNTZA ETA BIGARREN HIZKUNTZAREN ARTEKO ELKAR ERAGINA

Ez dugu aurkitu ez interakziozko estrategiarik, ezta kode aldaketa kasurik ere, euskaraz zein gaztelaniaz. Transfer kasu gutxi batzuk, ordea, badaude. Euskaraz gaztelaniaz baino zertxobait gehiago dira, kasu guz-

tiak mailegatzek dira eta, adierazkortasuna bilatzen dute guztiek ere: "Igual lagunak die un poquito rebeldes ta auskalo" (5E), "Pentsauko dute muti-la dala un poquito..." (5E), "Gran precio!, etorri!, etorri!, Gran precio niregana!" (5G), "Nik ez dakit... los milagros de la viagra!" (5G), "nere anaiak dauke un morro!" (5G). Gaztelaniazko ariketetan agertzen diren euskarazko transfer biak, estilo zuzena erabiliz egindako kontaktetak dira: "ur baso bat. ¿qué...?" (5E).

Ikasleen 1H eta 2Hetan aipagarria dena, zuzentasun aldetik onargarriak ez diren hizkuntza formen ugaritasuna dugu. Jakina, atal honetan bi hizkuntzei egotz dakizkiekeen akatsak soilik hartu ditugu kontuan. Hurrengo taulan forma horien kopuruak aurkezten ditugu:

6. TAULA: ZUZENTASUN ALDETIK ONARGARRIAK EZ DIREN HIZKUNTZA FORMEN KOPURUEN EMAITZAK.

Euskaraz egindako					Gaztelaniaz egindako			
probak					probak			
	8E	8G	5E	5G	8E	8G	5E	5G
Lexikoa	33	21	16	34	15	8	12	7
Morfologia	12	4	3	11	8	7	10	3
Sintaxia	13	7	4	16	11	2	3	2
Ortografia	0	2	1	2	0	5	6	0
Guztira	58	34	24	60	34	22	31	12

Beste hizkuntzaren eragina, euskaraz gaztelaniaz baino nabarmenagoa da. Hau da, euskaraz, gaztelaniaren eraginez, zuzentasuna apurtzen duten formak askoz ere ugariagoak dira. Aldea batez ere lexikoan aurkitzen dugu, morfologia, sintaxia eta ortografian euskaraz gehiago diren arren, aldea txikia baita. Zalantzarik gabe, euskararen minorizazio egoe-raren isla dugu hau.

Azter dezagun hutsegite horien nolakotasuna: Lexikoan, beste hizkuntzako hitzen kalkoak, mailegatzeko semantikoak, esamolde literalak e.a. aurkitzen ditugu: "gu pendiente egongo gea" (8E), "gaizki jai horiek!" (8G), "ikasiko dute beren errutatik" (8E), "asko duratzen du" (8E), "porque casi más que el medio habla euskera" (8E), "en una tienda de tipo de un chiringuito" (8E), "me siento muy dolorido" (8G), "en el año pasado saque buenas notas" (5E), "el jefe del coche" (5E).

Interakziozko estrategietan ikasleek nagusiki euskara erabiltzen dute oinarri-hizkuntza gisa. Hala ere, hizkuntza biak arbitrarioki erabiltzeko joera ere azaltzen zaigu.

Kode Aldaketa, hots, beste hizkuntza batean txertatutako esaldi osoak, euskaraz bakarrik aurkitu dugu

Transferrak, hots, beste hizkuntza batean txertatutako esaldiak baino txikiagoak diren hizkuntza-formak, maila lexikoan bakarrik aurkitu ditugu.

Morfologian aipagarriak dira deklinabide kasuen nahasketak, mugatzaileen erabilera okerra eta komuntadura-konkordantzia arazoak: “negoziozko pertson bat dirudi” (8G), “zakarrako poltsa” (5G), “gasolineko lekun” (8G), “nik zeozerrengatik bizi beharra dauket” (5G), “hay dos personas uno en la izquierda y otro en la derecha” (8G), “arriba hay una jaula de pájaro y detrás suya se ven letras” (5G), “creo que toda la culpa es para vosotros” (8G), “cuando pasa de alau de un termómetro” (5E), “hori errespeto falta bat iruditzen zait” (8E), “kulpa bat badauke” (8E), “y tirando pedo se va” (5E), “la idioma de los mayores” (5E), “gora ikusi dio joaten” (5G), “utzi beharra dizut” (5G), “hori niri asko kezkatzen zait” (5G).

Sintaxian ordena eta euskararen kasuan galdegaiak dira aipagarrienak: “puzkar bat handia” (8G), “orduan dago gizon bat autoa bultzatzen” (8G), “nere lana ez da egotea umek zaintzen, da erakustea” (8E), “donde para poner el precio en la tienda” (8E), “esto no es muy normal que pase” (8E), “estoy bastante dolida por esto todo” (8E), “le he dicho que cuanto antes lo arregle” (8E).

Bukatzeko, akats ortografikoen adibide batzuk gehituko ditugu: “chinoa” (8G), “empresariaren bat” (5E), “la izkierda” (8G), “ejecutivo” (8G), “conprando” (8G), “¿qué, bien los primeros días de clase?” (8E).

3.3.3. IKASLEEN 1. HIZKUNTZAREN ARABERAKO ALDEA IKASLE ELEANITZEN HIZKUNTZEN ARTEKO ELKAR ERAGINEAN

Ez dugu aurkitu lehen hizkuntzaren araberako alderik ez interakzio estrategia ez kode aldaketetan. Transferrei dagokienez, lehen hizkuntzari erreparatzen badiogu euskaradunek gaztelaniatik, hots, beren 2Htik gehiagotan transferitzen dutela esan behar dugu, bai mailegatze bai atzeritartze kasuetan. Atzeritartze kasu guztiak gaztelaniatik abiatzen dira. Gaztelania dutenek lehen-hizkuntzat, ordea, aldakortasun handiagoa erakusten dute, nahiz eta kopuruz gaztelaniatik pixka bat gehiago transferitzen duten.

1H eta 2Hen eraginez ingelesean zuzentasuna lortzen ez duten esaldiei begiratuz gero, ez dago lehen hizkuntzaren araberako alderik. Bi taldeetan interferentzia-iturri nagusia gaztelania da.

Lehen eta bigarren hizkuntzen elkar eraginari buruz esan dugu ez dugula aurkitu ez interakziozko estrategiak ezta kode aldaketarik ere, ez euskaraz ez gaztelaniaz. Transfer kasuetan lehen-hizkuntzak ez dauka eraginik.

Onargarritasunetik kanpo sailkatu ditugun hizkuntza formetan, aztergai dugun aldagaiari begiratuz gero, euskarazko ariketan ez dago ezer nabarmentzekorik, antzerako kopuruak aurkitzen baititugu bai lehen-hizkuntza euskara dutenengan bai gaztelania dutenengan. Gaztelaniazko jardunean, euskararen eragina nabarmenagoa da askoz ere lehen-hizkuntza euskara dutenen artean, bai lexikoan, bai morfologian,

baita sintaxian ere. Halere, gogora ekarri behar dugu orobat gaztelaniak euskararengan duen pisua alderantzizkoa baino handiagoa dela, baita euskara lehen-hizkuntzatzat dutenengan ere.

3.3.4. HIRUGARREN HIZKUNTZA IKASTEN HASI DEN ADINAK IKASLE ELEANITZEN HIZKUNTZEN ARTEKO ELKAR ERAGINEAN DUEN ERAGINA

Ingelesean aurkitzen ditugun elkar eragin fenomenoaren artean interakzio estrategiak izan ditugu hizpide. Hauen artean, laguntza eskeak ingelesa 5 urterekin ikasten hasi zirenen artean bakarrik aurkitzen ditugu. Gainera, oinarri-hizkuntza gisa, nagusiki euskara erabiltzen badute ere, nabarmena da 5G taldekoen artean hizkuntza biak arbitrarioki erabiltzeko joera. Izan ere, talde honetako hainbat ikaslek orain euskara orain gaztelania darabilte iturri gisa galderak egiterakoan. Adibidez, 5G taldeko ikasle batek segidan egindako galdera hauek aurkezten ditugu:

“She take the...a la botella?”, “And the, bota?”, “The boy stay with trousers and, colour beltza?”, “All the house is stay in the colour igual, berdina?” (5G)

Ikusten den bezala, ikasleak eskura dituen aukera guztiak darabilzki, zein hizkuntzatakoak diren kontuan hartu gabe. Halaber, galdera askotan bi hizkuntzak nahasian aurkitzen ditugu: *“one mysterious...buhoa?”* Gaztelaniazko “buho” hitza darabil baina euskarazko artikulua erantsita.

Gorago aztertu ditugun kode aldaketak ingelesa 5 urterekin ikasten hasi zirenen lanetan bakarrik dauzkagu. Ikusi dugun moduan, balio metadiskurtsiboa dute, kontaketa berari egiten baitiote erreferentzia, baina ikerlariari laguntza eskerik egin gabe edota gaitasun falta estaltzeko erabiltzen dira.

Ingelesean aurkitzen ditugun transferren azterketan alde nabarmena dela ikus daiteke. Ingelesa 5 urterekin ikasten hasi zirenek besteek baino gehiago transferitzen dute. Gaztelaniaz ez dago ezberdintasun handirik, nola mailegatzean hala atzeritartzean. Euskaraz, ordea, ia erabatekoa da alde, salbuespen gutxi batzuk alboratuta, transfer guztiak 5E eta 5G taldekoek egin baitituzte.

Onargarritasunetik kanpo uzten ditugun ingelesen emandako hizkuntza-formetan, akats gehiago eta anitzagoak aurkitu ditugu ingelesa 8 urterekin ikasten hasi zirenen artean: lexikoak [*“There are two persons”* (8E)], sintaktikoak [hitzen ordena: *“the boy is too sitting”* (8G)], morfologikoak [mugatzaileen erabilera: *“Drinking the champan”* (8E)].

Euskaraz eta gaztelaniaz aurkitzen ditugun transfer kasu apurrak 5E eta 5G taldekideen artean dauzkagu, hots, ingelesa 5 urterekin ikasten hasi zirenen lanetan.

Talde guztietan interferentzia-iturri nagusia gaztelania da, bai lehen-hizkuntzari dagokionez, bai ingelesaren aldagaiari dagokionez.

Beste hizkuntzaren eragina, euskaraz gaztelaniaz baino nabarmenagoa da. Hau da, euskaraz, gaztelaniaren eraginez, zuzentasuna apurtzen duten formak askoz ere ugariagoak dira.

4. ONDORIOAK

Beraz, laburbilduz esan genezake:

- HAAE garrantzitsuagoa da ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz baino. Ingelese aztergai ditugun lau kategoriak aurkitu ditugu. Euskaraz eta gaztelaniaz, berriz, transferrak eta 4. multzoko hizkuntza-formak baino ez; ez kode-aldaketarik, ez interakzio estrategiarik.

- Gaztelania da sorburu-hizkuntza nagusia. Distantzia tipologikoa oso garrantzitsua da.

Ingelesezko ariketetako transferren iturri-hizkuntza nagusia gaztelania da. Euskara, ordea, helburu metalinguistikoetarako erabiltzen da batez ere. Ikasleen 1H-k ez dauka baieztapen honetan eraginik. Beraz, tipologikoki xede-hizkuntzatik gertuen dagoen hizkuntzatik transferitzen dute ikasleek. Hizkuntza tipologia zein psikotipologiaren garrantzia bada, bat dator aztergai izan ditugun ikerketen ekarpenekin (Ahukanna et al., 1981; Ringbom, 1987; Singh eta Carroll, 1979).

Euskararen gutxiagotasun egoera azpimarragarria da.

2Htik transferitzeko joera nabarmena da euskara lehen-hizkuntza dutenen aldetik. Hori, bai transferretan eta baita laguntza eske zein kode aldaketetan ikusi dugu. Esate baterako atzerritartze kasu guztiak gaztelania iturri-hizkuntza gisa hartuta egin dituzte. Horrek probatzen du, gure iritziz, 2Hren estatusarena faktore garrantzitsua dela, ez baita alde-rantzizkoa gertatzen, hots, gaztelania lehen-hizkuntza dutenek gaztelania baitarabilte iturri-hizkuntza nagusi gisa. Euskararen minorizazio-egoera nabarmen agertzen da aipatutako kasuan.

Bestetik, zuzentasun aldetik onargarriak ez diren hizkuntza formetan gaztelaniak euskarak baino pisu handiagoa du. Hau da, euskaraz askoz ere ugariagoak dira, gaztelaniaren eraginez, zuzentasuna apurtzen duten hizkuntza formak. Hizkuntzen estatusaren faktoreak duen garrantzia, beraz, nabarmen geratzen da.

- Ikasleen 1. hizkuntzaren aldagaiak ez du eraginik HAAEean.

Bereko hizkuntza minorizatua iraunarazteko eredu nahiz murgilketa-eredua jarraitu duten ikasleen artean ez dago azpimarratzeko moduko ezberdintasun handirik HAAEri dagokionez. D ereduko ikasle hauen lehen eta bigarren hizkuntzek nahikotasun maila badute, hortaz. Ikerketen atalean ikusi dugu 2. Hizkuntzan maila baxua badute ikasleek, lehen hizkuntzatik gehiago transferitzen dutela. Gure ikasleek maila ona dute bai euskaraz, bai gaztelaniaz, edozein delarik beren lehen hizkuntza.

- HAAE handiagoa ematen da ingelesaren sarrera goiztiarra jarraitu duten ikasleengan.

Laguntza eskeak 5E eta 5Gko taldekideen lanetan bakarrik aurkitu ditugu. Gainera, nabarmentzekoa da 5G taldekoeen artean euskara zein gaztelania arbitrarioki erabiltzeko joera. Kode aldaketak 5E eta 5Gko taldekideen artean aurkitzen ditugu soilik.

Gainera, 5E eta 5Gko taldekideek besteek baino gehiago transferitzen dute. Gaztelaniaz ez dago ezberdintasun handirik, nola mailegatzearan hala atzerritartzean. Euskaraz, ordea, ia erabatekoa da aldea, salbuespen gutxi batzuk alboratuta, transfer guztiak 5E eta 5G taldekoek egin baitituzte.

Gure lanaren beste ondorioetako bat, bada, ez dator bat ikerketek orain arte erakutsi dutenarekin. Hain zuzen ere, ingelesaren eredu goiztiarra jarraitu dutenek, eta ikastordu kopuru gehiago dituztenek, elkar eragin handiagoa agertu baitute, eredu berankorragoekin aldearata. Baieztape hau bai laguntza eske, kode aldaketa bai transferretan ikus daiteke 3Hn eta transferretan 1H eta 2Hetan. Orain arteko lan urrietan ikusi dugu (Cenoz, 2003) goiztiartasunak ez zekarrela hizkuntza nahasketa handiagoa. Gure kasuan, ordea, elkar eragin handiagoa ondorioztatu dugu eredu goiztiarra eta ikastordu gehiago izan dituztenen artean.■

5. BIBLIOGRAFIA

- ADAM, J.M. (1985) Quel types de textes, in *Le Français dans le Monde* 192, 39-43 orr
- AHUKANNA, J.G.W.; LUND, N.J. & GENTILE, J.R. (1981) Inter- and intra-lingual interference effects in learning a third language, in *Modern Language Journal* 65, 281-287 orr.
- BILD, E. R. & SWAIN, M. (1989) Minority language students in a French immersion programme: their French proficiency, in *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 10, 255-274 orr.
- CENOZ, J. (2001) "The effect of linguistic distance, L2 status and age on cross-linguistic influence in third language acquisition". In J. CENOZ; B. HUFSEISEN & U. JESSNER (Ed.) *Cross-linguistic Influence in Third Language Acquisition: Psycholinguistic Perspectives*. Clevedon, Multilingual Matters, 8-20 orr.
- CENOZ, J. (2003) "The influence of age on the acquisition of English: General proficiency, attitudes and code mixing". In M.P. GARCÍA MAYO & M.L. GARCÍA LECUMBERRI (Ed.) *Age and the Acquisition of English as a Foreign Language*. Clevedon, Multilingual Matters, 77-93 orr.
- CHANDRASEKHAR, A. (1978) Base Language, in *IRAL* 16, 62-65 orr.
- CLYNE, M. (1997) Some of the things trilinguals do, in *The International Journal of Bilingualism* 1, 95-116 orr.
- DE ANGELIS, G. & SELINKER, L. (1998) *Interlanguage Transfer and Multi-*

1H eta 2Hen eraginez ingelesean zuzentasuna lortzen ez duten esaldiei begiratzuz gero, ez dago lehen hizkuntzaren araberrako alderik. Bi taldeetan interferentzia-iturri nagusia gaztelania da.

Gaztelaniazko jardunean, euskararen eragina nabarmenagoa da askoz ere lehen-hizkuntza euskara dutenen artean, bai lexikoan, bai morfologian, baita sintaxian ere. Halere, gogora ekarri behar dugu orobat gaztelaniak euskararengan duen pisua alderantzizkoa baino handiagoa dela, baita euskara lehen-hizkuntzatzat dutenengan ere.

- ple Language Acquisition: A Case Study*. TESOL 1999 kongresuan aurkeztutako txostena, New York.
- DE ANGELIS, G. & SELINKER, L. (2001) "Interlanguage transfer and competing linguistic systems in the multilingual mind". In J. CENOZ; B. HUFSEISEN & U. JESSNER (Ed.) *Cross-linguistic Influence in Third Language Acquisition: Psycholinguistic Perspectives*. Clevedon, Multilingual Matters, 42-58 orr.
- DEWAELE, J-M. (1998) Lexical inventions: french interlanguage as L2 versus L3, in *Applied Linguistics* 19, 471-490 orr.
- ECKE, P. (2001) "Lexical retrieval in a third language: evidence from errors and tip-of-the-tongue states". In J. CENOZ; B. HUFSEISEN & U. JESSNER (Ed.) *Cross-linguistic Influence in Third Language Acquisition: Psycholinguistic Perspectives*. Clevedon, Multilingual Matters, 90-114 orr.
- FOUSER, R.J. (2001) "Too close for comfort? sociolinguistic transfer from Japanese into Korean as an L>3". In J. CENOZ; B. HUFSEISEN & U. JESSNER (Ed.) *Cross-linguistic Influence in Third Language Acquisition: Psycholinguistic Perspectives*. Clevedon, Multilingual Matters, 149-169 orr.
- GIBSON, M.; HUFSEISEN, B. & LIBBEN, G. (2001) "Learners of German as an L3 and their production of german prepositional verbs". In J. CENOZ; B. HUFSEISEN & U. JESSNER (Ed.) *Cross-linguistic Influence in Third Language Acquisition: Psycholinguistic Perspectives*. Clevedon, Multilingual Matters, 138-148 orr.
- GOIKOETXEA, N. (2006) *Gaitasun komunikatiboa eta hizkuntzen arteko elkar eragina EAE-ko hezkuntza eleanitzean*. UPV-EHU argitaratu gabeko doktorego tesia.
- GOIKOETXEA, N. (2007) *Gaitasun komunikatiboa eta hizkuntzen arteko elkar eragina EAE-ko hezkuntza eleanitzea*, EHU-UPV Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- GOIKOETXEA, N. (2008a) Gure gaztetxoaren gaitasun komunikatiboaren argazkia, in *Uztaro* 64, 51-66 orr.
- GOIKOETXEA, N. (2008b) Gaitasun komunikatiboa ebaluatzeko proposamena, in *Hizpide*, 67 (moldiztegi)
- HUFSEISEN, B. (2000) "A european perspective: tertiary languages with focus on German as L3". In J. ROSENTHAL (Ed.) *Handbook of Undergraduate Second Language Education*. Malwak, NJ, Lawrence Erlbaum, 209-229 orr.
- LARSEN-FREEMAN, D. & LONG, M. H. (1991) *An Introduction to Second Language Acquisition Research*. New York, Longman.
- MAYER, M. (1969) *Frog, Where Are You?* New York, Dial Press.
- MÖHLE, D. (1989) "Multilingual interaction in foreign language production". In H.W. DECHERT & M. RAUPACH (Ed.) *Interlingual Processes*, Tübingen, Gunter Narr, 179-194 orr.
- POULISSE, N. (1990) *The Use of Compensatory Strategies by Dutch Learners of English*. Dordrecht, Foris.

- RAVEN, J.C. (1995) *Raven. Matrices progresivas*. Madrid, TEA Ediciones.
- RINGBOM, H. (1987) *The Role of the First Language in Foreign Language Learning*. Clevedon, Multilingual Matters.
- SHARWOOD SMITH, M. & KELLERMAN, E. (1986) "Crosslinguistic influence in second language acquisition: an introduction". In E. KELLERMAN & M. SHARWOOD SMITH (Ed.) *Crosslinguistic Influence in Second Language Acquisition*. New York, Pergamon Press, 1-9 orr.
- SIKOGUKIRA, M. (1993) Influence of languages other than the L1 on a foreign language: a case of transfer from L2 to L1, in *Edinburgh Working Papers in Applied Linguistics* 4, 110-132 orr.
- SINGH, R. & CARROLL, S. (1979) L1, L2 and L3, in *Indian Journal of Applied Linguistics* 5, 51-63 orr.
- SINGLETON, D. (1987) Mother and other tongue influence on learner French, in *Studies in Second Language Acquisition* 9, 327-346 orr.
- RINGBOM, H. (2001) "Lexical transfer in L3 production". In J. CENOZ; B. HUFSEISEN & U. JESSNER (Ed.) *Cross-linguistic Influence in Third Language Acquisition: Psycholinguistic Perspectives*. Clevedon, Multilingual Matters, 59-68 orr.
- ULIJN, J.M.; WOLFE, S.J. & DONN, A. (1981) *The Lexical Transfer Effect of French Knowledge in the Acquisition of English by Native Vietnamese Speakers*. Eindhoven, Eindhoven University of Technology.
- WEINREICH, U. (1953) *Languages in Contact*. The Hague, Mouton.
- WILLIAMS, S. & HAMMARBERG, B. (1998) Languages switches in L3 production: implications for a polyglot speaking model, in *Applied Linguistics* 19, 295-333 orr.
- WILLIAMS, S. & HAMMARBERG, B. (2001) "Roles of L1 and L2 in L3 production and acquisition". In J. CENOZ; B. HUFSEISEN & U. JESSNER (Ed.) *Cross-linguistic Influence in Third Language Acquisition: Psycholinguistic Perspectives*. Clevedon, Multilingual Matters, 21-41 orr.

HAEE garrantzitsuagoa da ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz baino.

Gaztelania da sorburu-hizkuntza nagusia.

Distantzia tipologikoa oso garrantzitsua da.

OHARRAK

1. XH: Xede-hizkuntza
2. Gaur egun ohiko eredua da ingelesa 4 urterekin ikasten hasia baina ikastordu gutxi jasoaz; eredu goiztiar partziala, beraz.